

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**ESKORIATZAKO UDALA**

**Idazkaritza-Kontuhartzailtza**

*Iragarkia*

Udalbatzarrak, 2021eko abenduaren 20an eginiko bileran, hasiera batez onartu du 2022ko Aurrekontu Orokorra. Honako hauek osatzen dute bera: Udalaren Aurrekontuak.

Gipuzkoako Lurralde Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, Aurrekontua jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

*Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-Kontuhartzailtza.

*Aurrekontua aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

*Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.

*Inpugnatzeko arrazoiak:* aipaturiko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoa urratzea.

*Aurkezteko bulegoa:* Udaletxearen sarrera erregistroa.

*Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe igarotzen bada, Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Eskoriatza, 2021eko abenduaren 21a.—Alkate-lehendakaria.  
(8172)

**AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**

**Secretaría-Intervención**

*Anuncio*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 20 de diciembre de 2021, ha aprobado inicialmente el Presupuesto General para el ejercicio de 2022, integrado por el Presupuesto propio del Ayuntamiento.

En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 15.1 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se expone a información pública conforme a las siguientes reglas:

*Lugar donde se encuentra:* Dependencias de Secretaría-Intervención.

*Plazo para examinarlo y en su caso para presentar reclamaciones:* quince días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Quiénes pueden interponer reclamaciones:* los interesados que relaciona el art. 17.1 de la Norma Foral 21/2003, además de los miembros de la Corporación que hubieran votado en contra del acuerdo.

*Motivos de impugnación:* los señalados en el art. 17.2 de la Norma Foral 21/2003, antes citados, e infracción del ordenamiento jurídico.

*Oficina de presentación:* Registro de Entrada del Ayuntamiento.

*Órgano ante el que se reclama:* Ayuntamiento Pleno.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente el mencionado Presupuesto General, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Eskoriatza, a 21 de diciembre de 2021.—El alcalde-presidente.  
(8172)